



Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko apirilaren 24an** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

ITSASO LUJANBIO APEZETXEA  
MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE  
MARIA JOSEFA AIZPURU SANTESTEBAN  
DANIEL OYARZABAL LARRABURU  
JOSU GARMENDIA RECALDE

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezeko idazkaria.  
Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du.

### 1.-AURREKO AKTEN ONARPENA

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2018ko martxoaren 27ko ohiko batzarreko aktan, ia norbaitek aldatetaren bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez akta onartzea erabaki du.

### 2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK

Alkateak ondorengo fakturak aurkeztu ditu, onartuak izan daitezen

Ordaindu beharrak, helbideratu gabeak

1	<b>RICARDO GALDEANO.</b> Eskolako gasoila	4.207,00 €
2	<b>RICARDO GALDEANO.</b> Udala eta kontsultako gasoila	490,00 €
3	<b>CEFERINO APEZETXEA.</b> Suhiltzaileen Iveco kamioiaren konponketa	830,69 €
4	<b>ARKAIZPEGURRAK.</b> Aterpeko pellet-a	1.730,30 €
5	<b>GESERLOCAL.</b> Martxoko kontabilitate aholkularitza, 2 egun	536,17 €
6	<b>KOPY-LEKU.</b> Fra. 181303. Fotokopiak	153,65 €
7	<b>TTIPI-TTAPA.</b> Info 18 eskuliburuan jarritako iragarkiak	125,01 €
	<b>ANSA JANARIDENDA.</b> Tartazu eta Alkainzuriaineko auzolanen	
8	hamaiketakoa	35,75 €
9	<b>ADARRA, S.L.</b> Asinkoko atearentzat grasa eta zamak lotzeko zintak.	29,20 €



10	<b>OXEGUARDA.</b> Apirilaren 7ko batzarreko bizkotxoa	10,00 €
11	<b>INSTALACIONES ELECTROMARINAS.</b> Anbulantziaren konbertidorea	2.497,44 €
12	<b>ONDARRABI.</b> Flayerrak eta kartelak Goizutraileko	369,05 €
13	<b>DINDAIA FUNDAZIOA.</b> Goxali egitasmoaren martxoko faktura	920,72 €
14	<b>IKASFIT.</b> Jumpfit-eko tranpolinen martxoko alokairua	314,60 €
15	<b>IKASFIT.</b> Jumpfit-eko tranpolinen apirileko alokairua	314,60 €
16	<b>NAFARROAKO INGURUMEN KUDEAKETA.</b> Informeak	290,40 €
17	<b>GOIKO-AUTO XXI, S.L.</b> Anbulantziaren rebisioa, eserlekuaren konponketa	128,20 €
18	<b>ANSA JANARIDENDA.</b> Tartazu eta beste auzolanen hamaiketakoa. Api. 6	36,25 €
19	<b>ANSA JANARIDENDA.</b> Aterpeko garbiketak egiteko produktuak	24,64 €
20	<b>ARANTXA JANARIDENDA.</b> Tartazu eta San Anton-Otxolobordako auzolana	23,25 €

Ordaindu beharreko gastuak: 13.066,92€

Udalbatzak gastuak aztertu ondoren helbideratu gabeko fakturak ordaintzea eta helbideratuak onartzea erabaki du aho batez

#### Gastu helbideratuak

1	<b>BIDANE HUICI ANTON.</b> Xalto eskolaren garbiketa lanak, martxokoa	1.576,12 €
2	<b>MARISOL APEZETXEA.</b> Udal eraikinen garbiketa lanak, martxoko faktura	1.007,22 €
3	<b>OIHANA INSAUSTI.</b> Eskulanak ikastaroaren martxoko faktura.	356,25 €
4	<b>TRABAJOS FORESTALES AZKONBIETA.</b> Burugorriko falten reposizioa	6.737,28 €
5	<b>ORTIZ DE ELGUEA.</b> Martxoko aholkularitza	147,80 €
6	<b>JUMPFIT. Ikafit S.L.</b> Tranpolinen alokairua, abendukoa.	314,60 €
7	<b>IMQ Prevención.</b> Arlo teknikoa 1. hiruhilabetekoa	556,66 €
8	<b>MARISOL APEZETXEA.</b> Udal eraikinen garbiketa lanak, apirilaren 1etik 9ra	302,67 €
9	<b>TUV RHEILAND.</b> NA-0585-BC ibilgailuaren ITVa	37,15 €
10	<b>ANAPEH.</b> Aterpeko kuota	70,00 €
11	<b>GIZARTE SEGURANTZA.</b> Otsaileko gizarte segurantzza	3.424,85 €
12	<b>GOIENER.</b> 2018/03/22tik 2018/04/18ra	2.785,67 €
13	<b>VODAFONE.</b> 2018/03/22tik 2018/04/18ra	379,20 €
14	<b>MOVISTAR.</b> 2018/03/22tik 2018/04/18ra	13,80 €

Helbideratutako gastuak: 17.709,27€

**Gastuak guztira: 30.776,19€**



Ondoren, Alkateak, diru sarreren berri eman du

## **DIRUSARRERAK**

1	<b>ERRENTAK.</b> Udal eraikinen errenta, apirilekoa	225,49 €
2	<b>ZERGADUNAK.</b> Ibilgailuen gaineko zerga. Helbideratuak	68.395,79 €
3	<b>ZERGADUNAK.</b> Ibilgailuen gaineko zerga. Helbideratu gabeak	4.497,49 €
4	<b>ZERGADUNAK.</b> Aurreko urtetako tasak	9,15 €
5	<b>ZERGADUNAK.</b> Gimnasioko kuota. Helbideratu gabeak	50,00 €
6	<b>ZERGADUNAK.</b> Udaleko lokalen erabilera. Laida Marco	50,00 €
7	<b>ZERGADUNAK.</b> PAC ziurtagiriak	1.454,08 €
8	<b>ZERGADUNAK.</b> Eroritako egurrak	157,30 €
9	<b>GESERLOCAL.</b> Martxoko bilketa ejekutiboa	63,66 €
10	<b>IRUNE ZABALA.</b> Zubimuxuko alokairuaren 4. ordainketa	1.000,00 €
11	<b>ZUBIMUXU.</b> Martxoko egonaldiak	963,00 €

**Guztira dirusarrerak: 76.865,96€**

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da, eta onartu egin ditu aho batez.

### **3.-INFORMAZIOA**

#### **3.1.-KANTAUURIKO UR KONFEDERAZIOA**

Kantauriko Ur Konfederaziotik jakinarazten da, Acciona Energia, SAU-k, eskatu duen baimenari sarrera eman zaiola, Leitza eta Goizueta arteko kanala garbitzeko eta zenbait zuhaitz mozteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **3.2.-NAFARROAKO ARARTEKOA**

Nafarroako Arartekotzatik, 2017 urteko txostena igorri da.

Udalbatza jakinaren gainean zegoena.

#### **3.3.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEKUEN FEDERAZIOA**

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko Zerbitzu Juridikoak txosten juridikoa egin du, Udal honetako langilea den Miriam Arozena San Miguel Idazkari Kontuhartzaileak 39/2014 Foru Dekretuan oinarrituta, eskatu duen hiru hilabeteko soldatarik gabeko baimenaren gainean.

Txostena aldekoa da, eta baimen berezia dela argudiatuz, udalak dekretua aplikatzea onartu beharko luke eta ordezkari pertsona bat kontratatu beharko luke.



Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.4.-NAFARROAKO KIROLAREN ETA GAZTERIAREN INSTITUTUA.**

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institututik, "Gazte Emantzipazioaren eta Etxebizitzaren" gainean ospatuko den jardunaldi baterako konbitea jaso da. Jardunaldia apirilaren 25ean egingo da, Fuerte del Principe Egoitzan.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.5.-TOKI AGENDEN ETA LANKIDETZAREN BULEGOA.**

Toki Agenden eta Lankidetzaren Bulegotik, gai desberdinei buruzko informazioa jaso da.

-Apirilaren 16tik aurrera, Tokiko Agenden Proiektuentzako diru-laguntzak eskatu daitezkeela.

-"Cambio Climatico"-aren gaineko jardunaldiak, apirilaren 25 eta 26an.

-Energiaren inguruan, Toki Entitateen alde egongo diren diru-laguntza deialdiei buruzko jardunaldiak, apirilaren 16tik maiatzaren 2ra bitartean, zonaldeka.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### **3.6.-FORESNA ZURGAIA.**

Foresna Zurgaiak, apirilaren 17rako antolatu duen hitzaldi baten berri eman du. Hitzaldia, Nafarroako Gobernuak baso lanen gainean argitaratuko duen diru-laguntzen deialdiari buruzkoa da, eta Lesakan izan zen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.8.-MENDIALDEA MANKOMUNITATEA.**

Mendialdea Mankomunitatetik, apirilaren 6an, Olatxoko zabor bilketa puntuan boluminosoak utzi dituztela jakinarazi zen. Argazkia igorri da.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### **3.9.GARAPEN AGENTEA.**

Elena Irigoien Garapen Agenteak, WIFI4EU inizatibaren berri ematen du. Europar Batasunak diru-laguntzak onartu ditu, udaletan internet-erako puntu publikoak jartzeko inbertsioak finantzatzeko (wifia jartzeko ekipoa eta instalazio kosteak). Eskaera egiteko epea maiatzaren 15ean irekiko da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.10.-MENDIALDEA MANKOMUNITATEA**

Mendialdea Mankomunitatetik, Batzar Orokorrerako deialdia egin zen, apirilaren 11rako, Leitzako Udalean, arratsaldeko 18.00tan.



Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### **3.11.-ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA. Lurralde Delegazioa**

Estatistikako Institutu Nazionaleko Nafarroako Lurralde Delegaziotik, 2018ko urtarrilaren 1eko biztanle kopuruaren proposamena jaso da. Goizuetako Udalaren kasuan, 705 biztanle proposatzen dira. Udalari, apirilaren 10 bitarteko epea onartzen zaio, udalaren proposamena bidaltzeko.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### **3.12.-RED NELS.**

Red Nels-etik, apirilaren 7rako, hemezortzigarren Batzar Nagusirako deialdia egin da, Erriberriko Kultur Etxean.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### **3.13.-LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANOKO GIZARTE ZERBITZUETAKO MANKOMUNITATEA. Berdintasun Batzordea.**

Berdintasun batzordeak, apirilaren 16rako deialdia egin zuen, arratsaldeko 17.00etako, Eskualdeko I Berdintasun Planaren Ebaluazio Txostena aztertzeko.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### **3.14.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOA.**

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziotik informazio desberdina jaso da.

-Apirilaren 5a bitartean, zabalik egongo dela izen emate epea, "Web 2.0ko tresnak eta teknologiak, herritarrek parte hartzeko bide" izeneko jardunaldia.

-2018ko apirilaren 10ean ospatu zen Batzorde Betearazlea.

-Berdintasunaren aldeko Udalen Sarea eratzeko lanen hasierarako egin zen bilkura, apirilaren 10ean, Burlatako Kultur Etxean.

-Nafarroako Gobernuako Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak prestatu dituen bi agiri, Nafarroako Toki Entitateek sortutako agiri eta espediente elektronikoak eraginkortasunez sortu eta kudeatzeko eta artxibo digital seguru batean gordetzeko, zenbait baldintza betetzen dituztenak.

-Nafarroako Gobernuako Barne Zuzendaritza Nagusiak eskatuta, prestatu diren jarraibideak, zer baimen eskatu eta zer tramite egin behar diren kontzertuak eta jaialdiak ospatu ahal izateko udaran aire zabalean.

-Martxoaren 23ko 1/2018 Errege Dekretuari buruzko zirkularra. Zirkular honen bidez, 2018ra luzatzen dira toki entitateen superabita finantza aldetik jasagarriak diren



inbertsioetan erabiltzeko aukera, eta horien xedearen eremua aldatu egiten du.  
Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

#### **4.-ESKAERAK**

##### **4.1.TXINO-ko FESTAK 2018**

Olatz Zabala Narbarte, Gazte Asanbladaren izenean, 2018. urteko txino auzoko jaietarako ondorengoa eskatu du:

- 1.-Bazkaria egiteko Lubineko Pilota Plaza erabiltzeko baimena
- 2.-Musika Ekipoa Erabiltzeko baimena
- 3.-Plastikozko hesiak erabiltzeko baimena eta itxaferoak eta zinta

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du, Olatz Zabala Narbarte, Gazte Asanbladaren izenean eskatutakoa ematea hurrengo baldintzekin:

- Bazkaria egiteko Lubineko Pilota Plaza erabiltzeko baimena ematea. Erabili ondoren garbia utzi beharko da, eta eskatzailearen ardura izango da bertan gertatu daitezkeen kalteen konponketak eta bestelako erantzukizunak. Giltza udalean jaso beharko da maiatzaren 3an. Ondoren giltza udalean entregatu beharko da.
- Musika ekipoa hartu izana erregistratuko da. Erabili ondoren udalera itzuli beharko da.
- Itxaferoak antolatzaileen esku jarriko ditu udalak. Dagokion babes eta bestelako neurriak behar bezala hartu beharko dira inolako ezbeharririk gerta ez dadin. Plastikozko hesiak eta zinta ere udalak antolatzaileen esku jarriko ditu

##### **4.2.-ANGEL ELIZEGI LUJAMBIO. Idoitako iturriko paretaren erortza**

Angel Elizegi Lujambio Goizueta Udalera zuzendu da, Udalak honek martxoaren 23an egin zion errekerimendu idatzia jaso ondoren. Idoitako Iturri inguruan Kale Nagusiko espalora Angelen belasoko paretatik eroritako harriak kentzeko eta paretaren birgaitzeko errekerimendu idatzia zen udalak egindakoa.

Angelek bere idatzian dio, paretaren erortze arrazoia, iturriaren alkantarillaren egoera txarra dela, eta eguraldiak laguntzen duenean, paretaren konpontzeko asmoa duela. Aldi berean, paretaren berritu aurretik, udalari eskatzen dio, iturriaren alkantarilla garbitu edota berregiteko, bestela urak belasoko paretatik filtratzen jarraituko duela eta berriz ere paretaren erortze dela.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du, Angel Elizegiri



jakinaraztea, udalak egin dituela dagozkion alkantarilla/tubo garbiketa/irekiera lanak eta paretaren birgaitze lanak egin daitezkeela.

## **5.- EGURANGA SL-K TARTERATU DUEN BERREZARTZE ERREKURTSOAREN EBAZPENA**

2015eko martxoaren 15eko idatzi bidez, Goizuetako Udalean martxoaren 19an sarrera duena, Eguranga SL-k berrezartze helegitea tarteratu du Goizuetako Udalaren 2018ko urtarrilaren 30eko akordioaren aurka.

Akordio honetan, Eguranga SL.ri , Arritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku eta Basakaundi parajeetako mendi ustiapenerako, 2018ko maiatzaren 31 bitarteko epe luzapena onartu zitzaion. Aldi berean, epe luzapen honengatik, 15.164,80€tako errenergua ordaintzeko agindu zitzaion, mendi ustiapenaren subasta arautzen duen plegu administratiboko 15. klausulan oinarrituz.

Helegite idatzian argudiatzen dena da, 2018ko urtarrilaren 30eako udal akordioa bertan bera uztea agindu zaion errenergua deusezteari dagokionean, edota subsidiarioki, bukatzeko falta den lanen gaineko errenergua aplikatzea, kontratuaren prezio osoaren gainean izan beharrean

Berrezartze helegite idatzi honen gainean, udaleko idazkariak dagokion txosten juridikoa egin du, 2018ko apirilaren 20an, non helegitearen atzera botatzea/deuseztapena ondorioztatzen den. Txostenak honela dio:

### **“INFORME JURIDICO ANTE EL RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO POR DON ANDRES ALBIZU BARRENECHEA EN REPRESENTACION DE EGURANGA SL, CONTRA ACUERDO PLENARIO DEL AYUNTAMIENTO DE GOIZUETA DE FECHA 30 DE ENERO DE 2018.**

Ante el Recurso de reposición interpuesto por Don Andrés Albizu Barrenechea, en representación de Eguranga SL contra acuerdo plenario del Ayuntamiento de Goizueta de fecha 30 de enero de 2018, por el que se concede a Eguranga SL, 4ª prórroga con fecha límite hasta el 31 de mayo de 2018, para el contrato de aprovechamiento forestal de los parajes Arritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku y Basakaundi y se impone un recargo de 15.164,80€, a pagar en el plazo de un mes, se emite el siguiente Informe Jurídico, en base a los siguientes

#### **ANTECEDENTES**

**Primero:** Eguranga SL, mediante escrito de fecha 18 de diciembre de 2017, visto que con fecha de 31 de diciembre de 2017 finaliza la 3ª prórroga del contrato de aprovechamiento forestal de los parajes de Arritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku y Basakaundi de Goizueta, solicita al Ayuntamiento 4ª prórroga de 3 meses para la concluir una parte de la explotación del paraje Arritxurieta, posterior acondicionamiento de las vías de saca y zonas



de acopio de material y demás trabajos acordados con el Ayuntamiento. Asimismo solicita que no se le imponga ninguna penalidad por dicha solicitud de prórroga.

**Segundo:** Con fecha de 9 de enero de 2018, la Sección de Gestión Forestal, del Servicio de Montes del Gobierno de Navarra, informa favorable ésta prórroga concediendo una 3ª prórroga y última (dato erróneo), debe entenderse, 4ª y última, hasta el 31 de mayo de 2018 para la finalización de los trabajos de explotación pendientes, así como del acondicionamiento de las vías de saca empleadas para la extracción de los lotes.

**Tercero:** Con fecha de 30 de enero de 2018, mediante acuerdo plenario del Ayuntamiento de Goizueta, en base al informe favorable de la Sección de Gestión Forestal y de conformidad con la cláusula 15 del pliego de cláusulas administrativas particulares que rigen la saca en subasta pública, del aprovechamiento forestal de los parajes de Arritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku y Basakaundi, acordó conceder a Eguranga SL 4ª prórroga con fecha límite hasta el 31 de mayo de 2018, para aprovechamiento forestal de los parajes parajes Arritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku y Basakaundi y se impone un recargo de 15.164,80€, a pagar en el plazo de un mes.

Dicho acuerdo es notificado a Eguranga SL el 15 de febrero de 2018.

**Cuarto:** Con fecha de 15 de marzo de 2018, Eguranga SL presenta en una Oficina de correos de Donostia-San Sebastián, y se da entrada en el Ayuntamiento de Goizueta el 19 siguiente, a recurso de reposición interpuesto por D. Andres Albizu Barrenechea, en representación de Eguranga SL contra acuerdo del pleno del Ayuntamiento de Goizueta de fecha 30 de enero de 2018, expuesto en el antecedente tercero, fundamentado en los siguientes motivos:

***Primera:** En fecha de 21 de noviembre de 2014 esta empresa suscribió con ese Ayuntamiento “Contrato de Aprovechamiento forestal de los parajes de Harritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku y Basakaundi”, por un precio de 758.240€, en virtud del cual Eguranga adquirió los derechos de aprovechamiento forestal referidos, debiendo proceder a la ejecución de los trabajos en un plazo de dieciocho meses y habiéndose otorgado licencia de explotación en fecha de 1 de diciembre de 2014.*

***Segunda:** En fecha de 20 de mayo de 2015, 26 de abril de 2016, 3 de mayo de 2017 y 15 de diciembre de 2017, Eguranga solicitó sendas prórrogas para la terminación de los trabajos de explotación, habida cuenta de las dificultades acaecidas (i) con ocasión de la adversa climatología, (ii) de la situación del mercado de la madera, (iii) de las infraestructuras de acceso a Goizueta y (iv) el problema de la enfermedad del Fusarium de la propia madera de insignis.*

***Tercera:** Las tres primeras prórrogas fueron autorizadas por sendas resoluciones municipales, previo informe favorable del Servicio de Montes del Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración del Gobierno de Navarra.*

*Respecto a la última de las prórrogas solicitadas, exclusivamente para la terminación total de los trabajos en parte del terreno de Harritxurieta cuanta igualmente con informe favorable del Servicio de Montes del Gobierno de Navarra de fecha 9 de enero de 2018, considerando justificados los motivos de retraso en la terminación de la explotación alegados por esta parte.*

***Cuarta:** A pesar de lo anterior, la resolución que ahora se recurre autoriza la prórroga solicitada, haciendo expresa referencia al informe favorable del Servicio de Montes del Gobierno de Navarra que considera justificados los motivos de retraso alegados por esta empresa, si bien impone una multa de 15.164,80 euros, equivalente al 2% del precio total del contrato.*





*Esta imposición de multa, con una finalidad evidentemente recaudatoria, resulta totalmente fuera de lugar y no ajustada a derecho, por cuanto:*

*1.-Los motivos del retraso justificados en la solicitud, tal y como expresamente reconoce el Gobierno de Navarra, no son imputables a esta parte, constituyendo causas de fuerza mayor, por lo que no puede imputarse a esta parte una penalidad por hechos que resultan ajenos a su ámbito de actuación.*

*2.-Por otro lado, debe tenerse en cuenta que la prórroga solicitada viene exclusivamente referida a los trabajos finales de terminación de la explotación y acondicionamiento de las vías de saca empleadas para la misma, por lo que de ninguna manera puede considerarse la existencia de un retraso en la ejecución total del contrato. Como ha quedado dicho, se trata de un simple y, por tanto, resulta un simple retraso parcial, por lo que en ningún caso se podría aplicar una multa en función del total del precio contratado, sino, a lo sumo, sobre la parte proporcional correspondiente a la parte del trabajo no realizado sobre el terreno de Harritzurieta.*

*La Ley 2/1998 de la potestad sancionadora dispone lo siguiente:*

***Artículo 7 Circunstancias modificativas de la responsabilidad.***

*2.En todo caso, deberá tenerse en cuenta, con efecto atenuante, cualquier circunstancia que manifieste una menor culpabilidad en el responsable de la infracción, guarde o no analogía con las expresamente previstas en el Código Penal o en las normas administrativas que configuren el régimen sancionador aplicable. No obstante esto último, se deberá considerar, para determinar la existencia del efecto atenuante y su grado, la naturaleza o finalidad de la concreta infracción y del régimen sancionador sectorial de que se trate.*

***Artículo 14 Régimen y aplicación de la sanción***

*3.Para la determinación en cada caso concreto de la sanción correspondiente o de la extensión de la misma, dentro de las fijadas para la infracción o categoría de infracciones en las normas sancionadoras aplicables, se ponderarán las circunstancias agravantes y atenuantes concurrentes.*

*4. Si concurren varias circunstancias atenuantes o una muy cualificada, produciéndose, en cualquiera de los casos, un significativo efecto minorador de la culpabilidad, el órgano sancionador aplicará una sanción correspondiente a infracciones o categorías infractoras de inferior gravedad que la infracción cometida o que la categoría en que ésta se incluya-*

*Comoquiera que no concurre circunstancia agravante alguna y sí una evidente atenuante por no resultar hechos propios de la actividad de Eguranga, el órgano sancionador debe proceder en el sentido dispuesto por el artículo 14.4 de la Ley 2/1998 de la potestad sancionadora, esto es, aplicando la sanción correspondiente a las infracciones de inferior gravedad. Así pues, en este caso, se impone la ausencia de infracción o, en todo caso, una fuerte atenuación de la sanción, reduciéndola a su mínima expresión.*

***Quinta:*** *Que, en consecuencia, no procede la aplicación de multa alguna, debiendo reponerse la resolución recurrida y dictando otra por la que se anule y se deje sin efecto la imposición de multa, por no resultar ajustada a derecho, o subsidiariamente, reduciéndola por aplicación sobre la parte proporcional correspondiente a la parte del trabajo no realizado sobre el terreno de Harritzurieta.*

Por todo ello solicita, se anule y dejar sin efecto la imposición de la multa, o con carácter subsidiario, proceda a la imposición de la sanción en su importe mínimo en proporción al terreno de Harritzurieta, en atención a las circunstancias que permiten atenuar la responsabilidad incurrida.



Ante las argumentaciones planteadas, se realizan las siguientes

## CONSIDERACIONES JURIDICAS

### **A)- En cuanto a la forma**

El acuerdo plenario recurrido ha sido notificado a Eguranga SL con fecha de 15 de febrero de 2018, mediante correo certificado y acuse de recibo.

El plazo de interposición de recurso de reposición es de un mes, si el acto fuera expreso. Este plazo se inicia a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar la notificación y concluye el mismo día en que se produjo la notificación (art. 124.1 y 30.4 de la Ley 39/20015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas)

Por lo tanto la presentación del escrito de recurso de reposición en una oficina de correos de San Sebastian con fecha de 15 de marzo de 2018 es formalmente valida y admisible.

### **B)- En cuanto al fondo**

-No procede considerar dicho acuerdo de imposición de recargo como una sanción dentro del marco normativo de régimen jurídico sancionador, tal y como lo considera el recurrente en su alegación cuarta, sino que hay que considerarla en el seno de contratación administrativa con la administración publica, por lo que no pueden tenerse en consideración los argumentos que hace referencia el recurrente a la normativa sancionadora. La normativa aplicable es la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos, por lo que la relación que tiene la empresa Eguranga SL con el Ayuntamiento se deriva, de contrato administrativo firmado de conformidad con la Ley 6/2006 de Contratos Públicos.

-De conformidad con el art. 45.1 de la Ley 6/2006 se denominan cláusulas administrativas particulares, a los pactos y condiciones definidores de los derechos y obligaciones de las partes, en sus aspectos jurídicos, administrativos y económicos, fijados previamente en los procedimientos de licitación.

Del tenor literal de la cláusula 15 del pliego de cláusulas administrativas particulares que rigen la saca en subasta pública del aprovechamiento forestal de los parajes de Arritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku y Basakaundi, se deduce la condición obligatoria que conlleva la solicitud de prórroga, esto es:

-imposición del 2% de recargo sobre el precio de adjudicación, para los seis primeros meses

-imposición del 10% de recargo sobre el precio de adjudicación, para los seis siguientes meses.

Este recargo de conformidad con el pliego se entiende sobre la totalidad del precio de adjudicación, 758.240€, y no sobre la parte del contrato que resta por finalizar, tal y como indica el recurrente en el escrito de recurso.

-De conformidad con el art. 45.7 de la misma Ley Foral, los documentos de formalización de contrato se ajustarán al contenido de los pliegos de cláusulas administrativas particulares, cuyas cláusulas se considerarán parte integrante de aquellos, por lo que el Ayuntamiento de Goizueta está haciendo cumplir al adjudicatario la obligación directa que conlleva la solicitud de prórroga, requerir al adjudicatario el pago del recargo del 2% sobre el precio de adjudicación, establecido en el contrato, por considerar que el contenido de los pliegos de cláusulas administrativas son parte integrante del contrato, documento vinculante para las partes, así como que han sido aceptadas por el adjudicatario en el



momento que ha presentado su oferta económica en la subasta de los aprovechamientos de Arritxurieta, Frantsesen Gurutzea, Anixar, Beileku y Basakaundi.

Además, de conformidad con el contrato firmado con el Ayuntamiento, el plazo de ejecución del contrato podrá ser prorrogado, siempre y cuando la ejecución del contrato se haya demorado por razones ajenas al contratista y sean justificadas debidamente. Los motivos expuestos por el adjudicatario para la solicitud de la prórroga, han sido considerados por el Ayuntamiento como ajenas al contratista y justificadas debidamente, dado que sin su consideración como tal, no se podría haber concedido la prórroga solicitada. Por ello, no se puede tener en cuenta el argumento que plantea el recurrente en la alegación, de que la solicitud de prórroga ha sido por circunstancias ajenas al contratista, dado que sin la concurrencia de la falta de responsabilidad del contratista, no cabe la resolución favorable de prórroga.

Por todo ello, y de conformidad con los antecedentes expuestos, se propone la desestimación del recurso de reposición presentado

Informe que se somete a cualquier otro mejor fundado en Derecho

En Goizueta, a 20 de abril de 2018.

LA SECRETARIA

Miriam Arozena San Miguel”

Udalbatzak, berrezartze helegitea aztertu eta idazkariaren txostenean oinarrituta, aho batez erabaki du:

- 1.-Eguranga SL-k aurkeztu duen berrezartze helegitea osotasunean deuseztatzea.
- 2.-2018ko urtarrilaren 30eko udal akordioa berrestea, eta Eguranga SL-ri 15.164,80€tako ordainketa lehenbailehen egin dezan jakinaraztea.
- 3.-Akordio honen berri Eguranga SL-ri ematea.

#### **6.- 2018KO AURREKONTUAREN ALDAKETA 02/2018. HASIERAKO ONARPENA**

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, zera agintzen du Alkateak:

2018 ekitaldiko aurrekontuaren aldaketa egiteko dagokion espedientea izapidetzea, eta hau



gauzatu ondoren, aurrekontuaren aldaketaren onarpenerako Udal Batzarrean aurkeztea agintzen du.

Horretarako, Alkatea, honako kontuhartzailearen txostenean oinarritzen da:

2018 urteko aurrekontuaren 02 aldaketa modu honetan egiten da

### **KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA.**

Miriam Arozena San Miguelek, Goizuetako Udaleko Ordezko Idazkari-kontuhartzailea naizen honek, 2/1.995, martxoaren 10eko, Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 270/1.998, irailaren 21eko, Foru Dekretuak, 2./1.995 Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaien garatzen duenak agintzen duenaren arabera, txosten hau egiten dut:

### **TXOSTENA**

*Aurrekontua aldatzeko aplikagarri den legedia.*

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaien garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, beharrezkoa ikusten da, kreditu berezi bidez, ondoren aipatzen diren aurrekontu aldaketak egitea

2018 urteko aurrekontuaren aldaketa modu honetan egiten da:

### **AURREKONTUAREN ALDAKETAK 02/2018**

\* Kreditu berezia: Kontusaila 1.4390.83100 Goizukoop Mailegua. Zenbatekoa: 72.000 €

#### **Honela finantzatzen da:**

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 72.000€



Kreditu berezia: Kontusaila 1.1350.6290003 Suhiltzaileen Inbertsioak. Zenbatekoa: 6.000 €

**Honela finantzatzen da:**

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 6000€

\* Kreditu gehigarria: Kontusaila 1.2110.1600001 Seguritate Soziala. Zenbatekoa: 2.200 €

**Honela finantzatzen da:**

Kontusaila: 1.87000 Gastu orokorretako diruzaintzako gerakinen kontura. Zenbatekoa 2.200€

*Aurrekontuaren aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura:*

- 1.-Udalbatzak behin behineko onarpena
- 2.-Jendaurreko erakustaldia, 15 eguneko epean Udaleko iragarki oholean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. 15 eguneko epe honetan interesatu denak aurrekontuaren aldaketaren espedientea aztertu dezake eta ongi deritzon erreklamazioak egin ditzake.
- 3.-Erreklamazioak egongo balira, Udalbatzak, hauei erantzuna emango die, eta behin betiko onartuko du aurrekontua.
- 4.-Erreklamaziorik ez balego, aurrean aipatutako 15 eguneko epea pasatzen denean, behin betiko onartua dagoela aurrekontuaren aldaketa ulertuko da.
- 5.-Behin betiko onartutako aurrekontuaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da

Beharrezko ondorioetarako,

Goizuetan, 2018ko apirilaren 18an

IDAZKARIA.

Sin: Miriam Arozena San Miguel



Udalbatzak, egin beharreko aldaketak aztertu ondoren, aho batez, 2018 ekitaldiko aurrekontuaren 02/2018 aldaketei, hasierako onarpenera ematea erabaki du, aldi berean legeak agintzen dituen izapidetzak egitea erabaki da.

### **7.-2018 URTEKO UEMA-REN PLANGINTZAREN ONARPENA**

Martxoaren 23ko 20E/2018 Foru Agindua, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Kontseilariak emana, "Udal esparruan Euskara erabiltzeko eta sustatzeko laguntzak, 2018. urtean" izeneko diru-laguntzaren deialdia onesten duena ikusirik, Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1.- UEMA-ren 2018ko plangintza orokorra onartzea.
- 2.- UEMA-k aurreikusitako 2018. urtean euskara sustatzeko eta erabiltzeko jardueren Programazioa onestea, eta programazio hori goian aipatutako deialdiko 4.4. oinarrian jasotako zehaztasunen arabera koordinatzea.

### **8-ALKATEAREN EBAZPENAK**

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2018-032tik 038ra** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

32 zenbakia: Jose Ignacio Etxeberria Etxenike, sutako egurra aprobetxatzeko baimena

33 zenbakia: Udala Makina retroeskabadora batekin hornitzeko kontratazio prozeduraren hasiera eta plegu administratibo eta teknikoaren onarpenera

34 zenbakia: Gizarte Zerbitzuko Mankomunitatea, apirilaren 11ean Batzar Aretoa erabiltzeko baimena.

35 zenbakia: Jesus Loyarte Arozena, matarrasa egiteko hasierako izapidetza.

36 zenbakia: Aralar Musika Eskola, eskolako musika gela erabiltzeko baimena, apirilaren 13, 20 eta 27an.

37 zenbakia: Ander Mitxelena Villabona, sutako egurra aprobetxatzeko baimena.

38 zenbakia: Julian Erasun Larrechea, matarrasa egiteko hasierako izapidetza.



GOIZUETAKO UDALA

## **9.-ESKARI ETA GALDERAK**

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean alkateak bukatutzat eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut.